

ARAZO EGOERA

URTAROEN JOAN ETORRIAN

ARLOA: Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua eta nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

MAILA: HH guztirako

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Urtaroen joan etorrien zikloan zehar, naturan aldaketa ugari gertatzen dira. Besteak beste, udaberriaren zuhaitzetako kimu berrien sorrera, loreen usain gozoa, udazkenean hostoen erorketa,... Aldaketa horiez konturatzeko, urtaroen inguruko ipuinak irakurtzen dira sarritan.

ARAZOA

Eskolan, sormena lantzeko, ipuin lehiaketa bat egitea erabaki dute. Norberak asmatuak, naturarekin harremana dutenak eta garaiarekin lotura zuzena dutenak izateko baldintzarekin.

Animatzen al zarete partehartzera?

XEDEA

Urtaroak, bata bestearen atzetik datozenean, ingurunean gertatzen diren aldaketez konturatu eta aldaketa hoiek islatuko dituen ipuin bat sortzea.

HELBURUAK

- Naturan gorputza kontrolatzen trebatzea, zentzumen pertzepzioa lantzea eta inguruaren ezaugarrietara egokitzea: mugimendua, oreka, koordinazioa.
- Basoetako, larreetako, putzuetako... bizitza mota ezberdinak behatu eta bizidunen artean dauden harremanak ezagutzen hastea.
- Zuzeneko behaketa bidez, eta zentzumen ezberdinetan sakonduz, naturako elementu eta bizidunen egoeraz konturatzea.
- Naturan, urtaroen joan etorrian, gertatzen diren aldaketez jabetzea.

ATAZA

Urtaro bakoitzean egingo diren irteeren bidez eta zentzumenetan arreta jarritz behaketa egitea. Informazioa bildu ondoren, guzti hori borobilduko duen ipuin bat sortzea. Ipuin horretan oinarrituz, harizko sare baten bidez, elementu eta bizidunen arteko elkarrekintzak bistaratuko dira.

JARRAIBIDEAK

- **Naturako txoko bat aukeratzea**, aniztasun aldetik aberatsa izatea komeni da. Lekua aukeratzeko, irizpide hauek lagun dezakete:
 - Adin ezberdinetako eta zuhaitz mota ezberdinez osatutako basoa.
 - Lurzoruan egur hilaren presentzia, esaterako, eroritako adar eta zuhaitzak.
 - Erreka, iturri, putzu,... uraren presentzia.
 - Argitasun altuko eremua izatea, landare belarkara ugari izatea ahalbidetuko du.
- Inguru horretara **urtaro ezberdinetan irteerak egingo dira**. Behaketa bidez, bertako **elementuak eta baldintzak identifikatuko dira**.
 - Ikusmen bidez, ingurunearen behaketa bat egingo da. Adibide hau, lagungarri izan daiteke:
 - Enbor lodiko zuhaitz bat dago, historik gabe, zuhaitz gazteak ere ugari daude. Enborrean goroldioa nabari da, zuloak daude eta zuloetatik, egur txikitua aterata ikusten da. Inurriak eta intsektu txikiak ikusten dira. Argitasun handia dago, basoaren goiko alde eguzki izpiak erraz sartzeko modukoa da, izan ere, hostoek ez dute historik.
 - Lurzoruan orbela eta era ezberdinetako belarrak, belarren artean, onddo bakar batzuk eta adar lehorrak. Lur tontor batzuk ere badaude, satorra edo antzeko animaliren baten aztarna izan daiteke.
 - Lurrean luma bat dago.
 - Bidezidor bat pasatzen da, bertan hanka arrastoak eta gorotza ikus daitezke..
 - Gainazalak bustita daude, ihintza edo euriaren eraginez.
 - Haizearen eraginez, belar eta adar finak mugitzen ari dira.
 - Fruitu ugari, pagatxak, ezkurak, gaztainak,...
 - Gora begiratzuz, txoriak adarretik adarrera dabilzala ikusten dira, horrez gain, eulia baino txikiagokoak diren intsektu hegalaria nabari dira.
 - Ukimenean arreta jarriko da, gainazal ezberdinak sentituz. Esaterako, enborren azala, goroldioa, luma, ura, orbel lehorra, hosto berriak, loreen petaloak, ...
 - Usaimenean jarriko da arreta. Horretarako, sudur eta ahoa irekita, eskuakin bilduz usaintzea gomendatzen da. Onddo, lore,

Naturan hezten

deskonposatzen ari den lurra, gorotza, goroldioa,... sentrazio oso adierazkorrek dituzte.

- Borobilean elkartu, zutik edo eserita, baina eroso behintzat, begiak itxi eta isiltasunean, entzumenaren bidez inguruko soinueta arreta jartzea gomendatzen da. Inguruko errekaren baten ur hotsa entzutea, edo txorien kantu alaiak entzutea ohiko izaten da. Belarri finak dituenak, intsektuen burrunba hotsa ere entzuten du.
- Zentzumen bakoitzaren lanketa egin ondoren, borobilean elkartuz, **esperientziak elkarbanatzea komeni da**. Informazio guzti hori, paper batean idatziz gordeko da.
 - Naturan jasotako informazio guzti hori, esaterako, arbelean idatzi eta euren arteko elkarrekintzak bilatuko dira. Guzti horri, sormenaren bidez ipuin batean forma emango zaio irakasleak bideratuta. Ipuin horren helburua, ekintza motibagarri bat egitea da.
 - Ondoren, ipuin horretan erabili diren elementu eta bizidunen marrazkia, argazkia, hitzak edota naturako elementuen bidez, txarteltxoetan adieraziko dira.
 - Amaitzeko, berriro naturako txoko horretara txartelekin gerturatzuz, ipuina kontatuko da. Kasu horretan, haur bakoitza naturako elementu edo bizidun bat izango da, txartela paparrean zintzilik duelarik. Hori adieraziko duen kontatzaileak, ipuina kontatzen duen eran, hariaren ertz bat abiatuko da, ipuinak aipatzen duen elementu edo bizidunetik eta soka luzatuko da. Modu horretara, naturako elementu guztiak elkartuko dituen sare bat osatuko da.

Sare honek, naturako elementu eta bizidunen arteko elkarrekintza adierazten du. Azken mezua honakoa da: **Bizidun denok elkarrekin harremanak ditugu eta urtaroz urtaro, baldintzak aldatzen doazen eran, natura ere aldatzen doa.**